

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

13. astea (2024ko martxoaren 25etik 31ra)

Gripe-birusaren zirkulazioa, COVID-19aren intzidentzia eta bronkiolitisaren diagnostikoak balore baxu eta egonkorretan mantentzen dira.


- *Aste honek bi jaiegun dauzka, eta honek eragin zuzena du datuen baliozkotasunean, bereziki Lehen Mailako Arretatik jasotako datuetan, bai zaintza sindromikoan zein jagolean.*
- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 227,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (366,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, azken asteetan nahiko egonkor mantendu diren gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek behera egin dute, ziurrenik aipaturiko jai egunak direla eta.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 15 lagin jagoleen % 46,7 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 6,7) atzeman delarik. Ez da gripe-birusik ala ABSik detektatu, baina bai 2 metapneumobirus eta 2 urtaroko koronabirus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,4/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 16 SARS-CoV-2, 10 gripe-birus eta 12 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 227,1 kasukoa izan da (366,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 193,8/100.000 izan da Araban, 236,2/100.000 Bizkaian eta 227,9/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1167,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 324,0 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan,.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 13. astea	Tasa 12. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	204,4	339,7	0,60 (0,54-0,67)
Arabar Errioxako ESI	511,2	451,6	1,13 (0,78-1,64)
Barakaldo-Sestaoko ESI	184,2	329,4	0,56 (0,48-0,66)
Barrualde-Galdakaoko ESI	271,0	420,5	0,64 (0,59-0,70)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	253,9	414,4	0,61 (0,56-0,67)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	237,1	404,6	0,59 (0,52-0,66)
Uribeko ESI	171,1	285,8	0,60 (0,53-0,68)
Bidasoako ESI	210,3	314,1	0,67 (0,55-0,82)
Debararrenako ESI	258,1	378,1	0,68 (0,57-0,82)
Debagoienuko ESI	159,5	294,0	0,54 (0,43-0,68)
Donostialdeako ESI	212,6	338,4	0,63 (0,57-0,69)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	286,3	427,4	0,67 (0,58-0,77)
Tolosaldeako ESI	217,8	406,0	0,54 (0,44-0,66)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du aste honetan eta 1,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (3,1/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du aste honetan eta 138,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (273,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 15 lagin jagole besterik ez dira aztertu eta horietatik % 46,7 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat atzeman da eta ez gripe-birusik ala ABSik. 2 metapneumobirus eta 2 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Aste honetan jasotako lagin urriek lortutako positibotasunak zuhurtziaz interpretatzera behartzen dute. Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 6,7, % 0,0 eta % 0,0, hurrenez hurren). Metapneumobirusaren eta urtaroko koronabirusen positibotasuna % 13,3koa izan da (% 15,9 eta % 2,3 aurreko astean, hurrenez hurren).


Positibotasunaren ehunekoak mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	13. astea		12. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	1	2,3	242	17,5
SARS-CoV-2	1	6,7	1	2,3	74	5,4
ABS	0	0,0	1	2,3	91	6,6
Metaneumobirus	2	13,3	7	15,9	88	6,4
Parainfluenza	1	6,7	3	6,8	35	2,5
Adenobirus	0	0,0	2	4,5	33	2,4
Errinobirus	1	6,7	7	15,9	269	19,5
Urtaroko CoV	2	13,3	1	2,3	83	6,0

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 12,1 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,4/100.000 aurreko astean), 11,7/100.000 emakumeetan eta 12,4/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 37,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 18,0 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 1,2koa (% 1,0 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 0,5ekoa (% 1,9 aurreko astean) eta ABSrena % 1,5ekoa (% 1,4 aurreko astean) izan direlarik. Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 20,7) eta parainfluenzarena (% 10,3) izan dira.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	13. astea		12. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	190	0,5	206	1,9	7216	8,9
Influenza	164	1,2	192	1,0	6782	17,8
ABS	137	1,5	147	1,4	5686	13,9

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 16 SARS-CoV-2, 10 gripe-birus eta 12 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 10 gripe-birusetatik, 8 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, A(H1)pdm09 bat eta B motakoa bestea. 2023/40 astetik 6086 detekzio erregistratu dira, 6063 (% 99,6) A motakoak eta 23 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1860 birusetatik, 438 (% 23,5) A(H3) eta 1422 (% 76,5) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, otsailean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 33,5 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 92,6) eta XDD (% 4,3) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 13. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 1,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (1,7/100.000 aurreko astean); 0,7 gizonetan eta 2,4 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 5 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (7 ospitaleratu aurreko astean), gizon bat eta 4 emakume. Ospitaleratutako pertsona guztiak 60 urtetik gorakoak ziren.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 13. astean, COVID-19 kasu berri bat erregistratu da EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (2 aurreko astean). Kasuak izan dituen zentro soziosanitario bakarra izan da, aurreko astean baino bat gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko apirilaren 3an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**